

2002-05-28
kioskoa

Iban Arregi

Grebaren kontrako igandeko elkarrizketak

Espainiako langabeziaren erreformaren kontrako greba deialdia salatzen segitzen dute PPTik gertuen dauden egunkariak. Hala, igandeko egunkarietan PPko goi-karguei eginiko elkarrizketak argitaratu zituzten, betiere sindikatuen eta PSOEn kontra gogor egiteko.

Diario de Navarra egunkariak Jose Maria Aznar Espainiako presidenteari Efe berri-agentziak eginiko elkarrizketa argitaratu zuen, eta Aznarren hitz hauek nabarmendu zituen titularrean: «Ez dago justifikaziorik greba egiteko». Beste gaien inguruan ere bai, baina nagusiki grebaren inguruan galdetu zioten elkarrizketa horretan. **La Razon** egunkariak Javier Arenas PPko idazkari nagusia elkarrizketatu zuen. Gai asko ukitu zituzten elkarrizketa horretan —Gibraltar, ETA, Batasuna...—, baina kazetariak grebaren gaiari eskaini zizkion elkarrizketako titular denak —«Grebaren atzean PSOEn eskua ikusten dut, etengabe», zioen Arenasek egunkari horretan—. Hain justu, kazetariak Arenasen hiru esaldi nabarmendu zituen elkarrizketa horretan, eta hiru esaldietan PSOEn kontra egiten zuen Arenasek. **ABC**-k Rodrigo Rato Espainiako Ekonomia ministroari eginiko elkarrizketa atera zuen igandean. Rato ere gai asko aipatu zituen, betiere kazetariaren galderei erantzunez, baina denen gainetik grebaren gaia nagusitu zen elkarrizketa horretan ere. «Greba sindikatuen indarrezko neurri bat da, eta gizarte honek alternatibak nahi ditu», zioen, Ratoen esanak bilduz, **ABC**-ko elkarrizketako titular nagusiak.

Egunkaria 3.562. zenbakia

Ohorezko Lehendakaria: Martin Ugalde

Administrazio Kontseiluko Lehendakaria: Joan Mari Torrealdai

Kontseilari Ordezkarria: Iñaki Uribe

Zuzendaria: Martxelo Otamendi

Gerentea: Mikel Sorozabal

Publizitatea: Idoia Sanz

Egoitza Nagusia: Martin Ugalde Kultur Parkea 20140 Andoain Tel.: 943300222
Erredakzio faxa: 943300255-943590354 Publizitateko faxa: 943300707

Webgunea: www.egunkaria.com


Posta elektronikoa: egunkaria@egunkaria.com

Publizitatea: publi@egunkaria.com

Batzorde Parekidea. 72664 E. Lege Gordailua. SS 800/90 ISSN 1134-640X
OJDK IKUSKATURIKO HEDAPENAORDEZKARITZAK ■ Araba: San Antonio, 20-1 ezker. 01005 Gasteiz
Tel.: 945233872 Faxa: 945233873 Publizitatea: Tel.: 945131965Nafarroa: Irabiz Monasterioa, 45-13. esk. (Irritzi dorrea) 31011 Iruñea
Tel.: 948178073-79 Faxa: 948178077 Tel.: Publizitatea: 948176686Bizkaia: Egia Jenerala, 3-behea. 48010 Bilbo Tel.: 944104046 Faxa: 944103715
Tel.: Publizitate Orokorra: 944701199-80 Publizitate Lokala: 944701114Lapurdi, Nafarroa Beherea, Zuberoa: Pelletier 35,
64100 Baiona Tel.: 559593575 Faxa: 559257511

martintxo

NAFARROAKO GOBERNUAREN ASMOA...



hizpideak

Otegiren aurkako kereila eta Alderdi Politikoen legea

Espainiako Auzitegi Gorenak artxibatu egin du Arnaldo Otegiren aurka auzitegi bereko Fiskaltzak jarri zuen kereila. «Gora Euskadi ta askatasuna» esatea, izatekotan, iritzi delitua izan litekeela adierazi du Gorenak, apologia, baina «terrorismoaren apologia ez dela terrorismo delitua». Batasuneko bozeramailearen aurkako auzia bertan behera uztea eta Alderdi Politikoen legea ez direla «nahastu» behar adierazi zuten, berria jakin orduko, PSOEko eta PPko ordezkariak. Baina Gorenaren erabakiak, Alderdien legea aldatu beharra erakusten duela erantsi zuten.

Tabakoaren aurkako lege proiektua Nafarroan

Tabakoaren kontsumoa mugatu eta zigortzen duen Lege Proiektua onartu zuen atzo Nafarroako Gobernuak. Proiektuak neurri sorta handia proposatzen du, baina bada bat bereziki berritzailea eta dudarik gabe eztabaida handia sortuko duena: enpresetan erretzea debekatzea, salbu eta horretarako egokitutako guneeetan. Erretzen ez duten pertsonen osasuna babestu nahi du Gobernuak neurri horrekin. Enpresaburuek jadanik erreparatzen azaldu dituzte, horrelako neurriak gastuak handitu eta lehiakortasuna murrizten dutelako, haien ustez.



Arnaldo Otegi orain gutxi eskainitako prentsaurreko batean.



Alvaro Uriberen aldeko kartela Bogotako auto batean.

Bizkaiko hormigoiko greba erdi amaituta

Bizkaiko hormigoio eta harrobigitzako sektorea osatzen duten 28 enpresetatik 10-11k lanuzteari eustea erabaki zuten atzo eta, ondorioz, ezin esan daiteke greba erabat bukatuta dagoenik. Lan gatazkak guztira iraun duen 40 egunotan eragin zuzena izan du eraikuntzan. Alorreko patronala lanuztearen eraginez ezer egin gabe zeuden eraikuntzako 15.000 langile kaleratzeko arriskua iragarzera iritsi zen. ELAren iritzi ez dute gatazka galdu eta lan hitzarmenak gehiengo sindikalarekin hitzartu behar direla erakutsi diote CEBEKi. Kontuan hartu behar da ELAK %75eko ordezkariatza duela alorrean eta CEBEK LAB, UGT eta CCOO sinatu zutela lan hitzarmena.

Kolonbiako gerrillekin negoziazio baldintzatuak

Alvaro Uribe Kolonbiako igandeko hauteskundeetan presidente aukeratua izan zen hautagai kontserbadorea prest agertu zen atzo NBE Nazio Batuen Erakundeak talde gerrillarekin elkarrizketak berriz abia ditzan, baina horretarako baldintzatuak jarri zuten matxinoek *terrorismoa* utzi eta erasoak etetea. AUC Kolonbiako Autodefentsa Batuak eskuin muturreko erakunde paramilitarrak pozez hartu zuten Uriberen aukeraketa, «presidente duina» izango delakoan. Adituen ustez, Uribe AUCren begikoa da. Segurtasuna bermatzea da presidente berriaren lehentasunetako bat. Hori lortzeko, Armadako kideen kopurua bikoiztu nahi du.